



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko otsailaren 29a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da irizpideak batu ditzan eta etorkin sahararren dokumentuen izapidetzea erraztu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da indarrrik gabe utz dezan lanbide arteko gutxi-eneko soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatzen duela nazioko Gobernuak pasa den otsailaren 10ean dekretu bidez onetsitako lan-erreforma. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da energia-aurrezpenari buruzko plan bat aurkez dezan, premiazkoa eta berariazkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Defentsa Ministerioari eska diezaion Ezkaba-ko Gotorlekuaren jabetza eskualdatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da euskaraz publizitate instituzional gehiago txerta dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Gobernuak premiatzen da giza eskubide guztiak aktiboki defenda eta susta ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da egin dezan erraustegiek osasunean duten eraginari buruzko azterlan erreal bat. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da onar dezan Nafarroak Bruselan duen bulegoari buruz Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak eginiko proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 31 baino lehen helburu bat ezar dezan 2012rako enpleguari dagokionez. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Pirinioetako autobiako azken bi zatietako ordainketari eta itzaleko bidesari gisa ordaindutako kopuruei buruzkoa. Galdera erretiratzea (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Proiektu hori 2012ko otsailaren 3ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko 4. idatz-zatian lerrokada berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak legegintzaldi bakoitzean zenbat parlamentu-talde dituen, hainbeste kide proposatuko ditu Administrazio Kontseilurako, eta parlamentu-talde bakoitzak kide bat proposatu beharko du,”

Zioak: gure ustez, behar adinako gardentasuna ziurtatu beharra dago, eta, horretarako, Nafarroako Parlamentuko aniztasunak osoki behar du egon Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren Administrazio Kontseiluan.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da irizpideak batu ditzan eta etorkin sahararren dokumentuen izapidetzea erraztu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko otsailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da irizpideak batu ditzan eta etorkin sahararren dokumentuen izapidetzea erraztu dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da irizpideak batu ditzan eta etorkin sahararren dokumentuen izapidetzea erraztu dezan

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du irizpideak batera ditzan eta, printzipio horiek oinarri, dokumentuak izapidetzen utz diezaien etorkin sahararrei, haien egoera administratiboa erregulariza dezaten eta nazionalitatea lortu ahal izan dezaten.

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indarrik gabe utz dezan lanbide arteko gutxieneko soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko otsailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indarrik gabe utz dezan lanbide arteko gutxieneko soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indarrik gabe utz dezan lanbide arteko gutxieneko soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du indarrik gabe utz dezan 2012rako lanbide arteko gutxieneko soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea, eta horiek eguneratu ditzan.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia-
tzen duela nazioko Gobernuak pasa den otsailaren 10ean dekretu bidez
onetsitako lan-erreforma.**

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko otsailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia-
tzen duela nazioko Gobernuak pasa den otsaila-
ren 10ean dekretu bidez onetsitako lan-erreforma."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako
Parlamentuak adierazten du arbuia-
tzen duela nazioko Gobernuak pasa
den otsailaren 10ean dekretu bidez
onetsitako lan-erreforma**

Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adie-
razten du Espainiako Gobernuak 2012ko otsaila-
ren 10ean dekretu bidez onetsitako lan-erreforma
dela-eta.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia-
aurrezpenari buruzko plan bat aurkez dezan, premiazkoa eta berari-
azkoa.**

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia-
aurrezpenari buruzko plan bat aurkez dezan, pre-
miazkoa eta berariazkoa."

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 23an eginda-
ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko azaroaren
4ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-
lean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Minis-
terioari eska diezaion Ezkabako Gotorlekuaren jabetza eskualdatzeko.**

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa
Ministerioari eska diezaion Ezkabako Gotorlekua-
ren jabetza eskualdatzeko."

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 23an eginda-

ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako
mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko azaroaren
4ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-
lean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz publizitate instituzional gehiago txerta dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz publizitate instituzional gehiago txerta dezan".

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko azaroaren 11ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Gobernua premiatzen da giza eskubide guztiak aktiboki defenda eta susta ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Gobernua premiatzen da giza eskubide guztiak aktiboki defenda eta susta ditzan".

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko azaroaren 11ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin dezan erraustegiek osasunean duten eraginari buruzko azterlan erreal bat.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Marisa De Simón Caballero andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin dezan erraustegiek osasunean duten eraginari buruzko azterlan erreal bat.

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko azaroaren 25eko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroak Bruselan duen bulegoari buruz Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak eginiko proposamena.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroak Bruselan duen bulegoari buruz Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak eginiko proposamena."

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 31 baino lehen helburu bat ezar dezan 2012rako enpleguari dagokionez.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 31 baino lehen helburu bat ezar dezan 2012rako enpleguari dagokionez"

mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko otsailaren 17ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Pirinioetako autobiako azken bi zatietako ordainketari eta itzaleko bidesari gisa ordaindutako kopuruei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2012ko otsailaren 23an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko galdera, Pirinioetako autobiako azken bi zatietako ordainketari eta itzaleko bidesari gisa ordaindutako kopuruei buruzkoa, erretiratu izanari dagokionez.

Galdera 2012ko otsailaren 3ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera